

ISSN: 2530-6561
2018ko iraila
Bilbao

hegoak zabalduz

Hegoa, Nazioarteko
Lankidetzeta eta
Garapenari Buruzko
Ikasketa Institutua

Universidad del
País Vasco /
Euskal Herriko
Unibertsitatea
UPV/EHU

Migrazioak eta garapena *Win-win* agertokia posible ote?

Gorka Moreno Márquez
Xabier Aierdi Urraza

Migrazioak eta garapena *Win-win* agertokia posible ote?

Gorka Moreno Márquez
Xabier Aierdi Urraza
Ikuspegi - Euskal Immigrazioaren Behatokia
Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU

Aurkibidea

1. Sarrera	5
2. Garapenaren eta migrazioen teorien arteko harremana eta bilakaera	6
3. Migrazioak eta garapena: eztabaidaren nondik norakoak eta ekarpen ezberdinak	8
3.1. Garapenak migrazioa mugatzen du	9
3.2. Garapenak migrazioa sustatzen du	9
3.3. Migrazioek garapena mugatzen dute	9
3.4. Migrazioek garapena sustatzen dute	10
3.4.1. Diru-bidalketak, bidalketak	11
3.4.2. Itzulera eta migrazio zirkularrak	12
4. Elkargarapena	14
5. Globalizazioaren eragina	15
6. Ondorioak: posible al da migrazioen eta garapenaren ekuazioa gauzatzea?	18
Bibliografia	19

Erredakzio kontseilua

Zuzendaritza: Xabier Gainza
Irati Labaien

Kideak: Eduardo Bidaurrezaga
Iker Etxano
Mertxe Larrañaga
Elena Martínez Tola
Mikel Zurbano

hegoak zabalduz euskarazko material bildumak ikuspegi zabal batetik garapenarekin lotutako askotariko gaiak jorratzea du helburu. Testuak didaktikoak eta dibulgazio mailakoak dira, eta gaien inguruko sarrera edo ikuspegi orokorra ematen dute.

Migrazioak eta garapena. Win-win agertokia posible ote?

Egileak: Gorka Moreno Márquez, Xabier Aierdi Urraza

hegoak zabalduz - 6. zk. 2018 iraila

ISSN: 2530-6561



www.hegoa.ehu.eus

UPV/EHU. Zubiria Etxea
Lehendakari Agirre Etorbidea, 81
48015 Bilbao

Tel.: 94 601 70 91
Faxa: 94 601 70 40
hegoa@ehu.eus

UPV/EHU. Carlos Santamaría Zentroa
Elhuyar Plaza, 2
20018 Donostia-San Sebastián

Tel. 943 01 74 64
Faxa: 94 601 70 40
hegoa@ehu.eus

UPV/EHU. Arabako Campuseko Liburutegia

138. posta-kutxa
Nieves Cano, 33
01006 Vitoria-Gasteiz

Tel. / Faxa: 945 01 42 87
hegoa@ehu.eus

Diseinua eta Maketazioa: Marra, s.l.

hegoak zabalduz material bilduman argitaratzen diren testu guztiak, Creative Commons en lizentzia honekin argitaratzen dira:



Reconocimiento-NoComercial-SinObraDerivada 3.0 España.

Lizentzia osoa:

<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/>

Finantzatzailea:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes

Laburpena: Migrazioek lortu al dezakete garapena sustatzea jatorrizko zein helmugako lurraldeetan? Denak irabazle aterako diren *win-win* agertokia posible ote da? Eskuarki, ezezkoa da erantzuna. Ezintasuna ez dagokio immigrazioari, garapen aukerari berari baino. Aspaldi erakutsi zuten buru argitsuenek azpigarapena garapenaren halabeharrezko emaitza zela. Garapena/azpigarapena prozesu berbera da. Bata eta bestea elkarri loturik daude, banatu ezinik. Immigrazioa eta garapena elkar elikatze aldera, ekonomia eta mundu-sistemaren baldintza eta faktoreak asimetria eta desorekaz beterik daude. Hasieratik, gainera, desoreka eta ezberdintasunak daudelako gertatzen dira migrazio-fluxuak. Migrazioak ez dira oreka testuinguru batean sortzen, eta ezin da alde batera utzi azken urteetan eredu neoliberalak barne-ezberdintasunak handitu baino ez dituela egin garatu gabe dauden herrialde gehienek kontra. Zenbait kasutan eta baldintza jakinetan, zirkuluaren koadratura mugatuak lor litezke, baina emaitza horiek ezin dira orokortu. Familia- eta komunitate-estrategiak sustatzeko balio badute ere, ezin dute egitura aldaketarik sustatu. Hau da, onura eskasak dakartza jatorrian, nagusiagoak helmugako lurraldeetan, eta, kasu gehienetan, beti ez esatearren, helmugako lurraldea ateratzen da garaile immigrazioaren eta garapenaren arteko harremanean.

Hitz gakoak: Migrazioak, garapena, Ipar-Hego harremanak, bidalketak, transnazionalismoa

Abstract: Can migrations foster development in both their source and destination countries? Is a win-win scenario possible? In general, the answer is no, not so much because of immigration itself, but rather due to development opportunities. For many years, experts have told us that underdevelopment is an inevitable and necessary part of development. In other words, development/underdevelopment are one and the same process. They are intrinsically linked. To enable a feedback loop between immigration and development, the conditions and factors of the economy and the world system are replete with asymmetries and imbalances. Moreover, right from the very first moment, migratory flows are indeed the result of these imbalances and inequalities. Migration does not occur in a balanced context, and we cannot afford to overlook the fact that, over recent years, the neoliberal model has done nothing but exacerbate internal inequalities, to the detriment of developing countries. In some cases, and under very specific circumstances, it is possible to square the circle, but this is extremely rare. As long as immigration helps families (and communities) to achieve their goals, it cannot hope to bring about meaningful change to the underlying structure of the situation. In other words, immigration brings scarce benefit to the country of origin, and much greater benefit to the destination country, and in most (if not all) cases, it is the destination country that emerges victorious from relationship between immigration and development.

Keywords: Migration, development, North-South relations, remittances, transnationalism.

1. Sarrera

XX. mende bukaeratik gaur egunera arte, migrazioen eta garapenaren arteko harremanak indar handia hartu du nazioarteko eztabaida politiko zein akademikoan. Eztabaida horretan, hainbat ikuspegitatik hartu dute parte nazioarteko erakundeek, hainbat lurraldetako gobernuek, unibertsitate eta ikerketa-zentroek, etorkinen erakundeek edota gizarte-mailako beste eragile batzuek.

Azken hamarkadetan nazioarteko migrazio-fluxuak garatzeak eragina izan du eztabaida honetan. Zentzu horretan, bai jatorrizko zein helmugako lurraldeentzat migrazio horiek erronka batzuk jarri dituzte mahai gainean, eta horien arteko elkarkidetzak behar-beharrezkoa ikusten da. Horretarako, bai lurralde batzuentzat zein besteentzat, migrazioak onuragarriak izan behar dira, eta nolabaiteko *win-win* agertokia ahalbidetu beharko lukete elkarkidetzak hori era egokian gauzatzeko.

Testuinguru horretan, garapenaren ideiak indar handia hartzen du migrazioei loturik. Horren arabera, migrazioen bidez bai jatorrizko zein helmugako lurraldeen garapen ekonomikoa lortu ahalko litzateke, zirkulu bertutetsua bermatuz. Besteak beste, diru bidalketak *–remesas–* aztergai garrantzitsu bihurtu dira, jatorrizko lurraldeen garapenean berebiziko garrantzia izango bailukete.

Baina ez hori bakarrik; zenbaitetan, batez ere Iparraldeko lurraldeetan, garapenaren diskurtsoa erabiltzen da hego-ipar migrazioak eta nahi ez diren migrazio-fluxuak baretzeko eta saihesteko: “ez al litzateke hobe euren jatorria garatzea, horrelako jazarpenak bizi behar ez izateko eta pairatzen dutena saihesteko?”. Oso galdera arrunta da, eta, askotan, borondate onez egindakoa. Hala, oso interesgarria izaten da kontuan hartzea elkartasunaren muga moralak muga politiko-geografikoak bukatzen diren toki berean amaitzen direla. Ikusten denez, ikuspegi normatiboak zein utilitaristak agertzen zaizkigu eztabaida honetan, eta, zenbaitetan, gainera, elkar nahasirik. Oso esanguratsua da, esaterako, Frantziako Fronte Nazionalaren diskurtso politikoetan ohikoa izatea migrazio-fluxuen jatorrizko lurraldeetan garapena bultzatzeko nahia, horrela, fluxu horiek baretu eta kontrolatzeko. Edo gerta ez daitezten. Jendarteak immigrazioa ez onartzeko edo zeharka kontrolatzeko asmo ezkutu bezain lorrezina izaten du, eta gizarte hartzaileetan oso zabaldua dago pentsatzeko modu hau: garapenaren bidez fluxuak eragozteak. Kasu horietan, uste izaten da jatorrizko gizarteak garatuz gero, migrazioak geldiarazi egingo direla; ideia hori oso erroturik dago munduan zehar. Arazoa beti izaten da gainerako gizarteak ustiatu nahi izaten ditugula, ez garatu.

Migrazioen teorian, ulerkera klasikoek migratzaile potentziala kalkulu sinpleak egiten ikusten dute: jatorrizko gizartea eta gizarte hartzailea konparatu egingo litzuke, eta konparazioaren emaitzaren ondorioz arrazionalki aukeratuko luke zer egin: migratu edo geratu. Erabakiak ez dira hain errazak, baina logika hori aplikatuta, magikoki, jatorrizko gizarteak garatu, desberdintasunak desagertu eta migratzeko premia desagertu egiten dira. Pentsamolde horrek ahaztu egiten du, agian ezjakintasunean oinarrituta, azpigarapena, garapenaren beste aurpegia, ezinbestekoa, dela.

Lan honetan, migrazioen eta garapenaren harremanean sakonduko da, bi kontzeptu horien bilakaera zein izan den aztertuz, era erraz eta dibulgatiboan. Hori dela eta, gaiari loturiko gai edota arlo nagusiak modu orokorrean planteatu, eta horien inguruko azterketa kritikoa egiten da. Azken finean, gure helburua da sakonago lantzea migrazioak eta garapena bikoteari egozten zaizkion ahalmenak benetan horrela diren ala ez.

Lanaren egiturari dagokionez, lehenik eta behin, migrazioen eta garapenaren arteko harremanak zer bilakaera izan duen aztertuko dugu. Horretarako, garai ezberdinetan nagusi izan diren migrazioen teoriak garapenaren inguruan zer ikuspuntu duten landuko da. Eztabaidaren bi muturrak diren teoria neoklasikoa eta dependentziaren teoria jorratu dira. Ondoren, azken urte hauetan gai honetan indarra hartu duen transnazionalismoaren ezaugarri nagusiak aipatuko dira.

Bigarrenik, buru-belarri sartu gara migrazioen eta garapenaren inguruko gaur egungo eztabaidan, eta horretan topa daitezkeen ikuspuntu nagusiak azpimarratu ditugu. Lau izan badaitezke ere, guk eztabaidaren bi muturretan dauden hurbilketa jarri dugu arreta. Migrazioen eta jatorrizko lurraldearen garapenaren harreman baikorra defendatzen duena, alde batetik; eta, bestetik, migrazioek lurralde horien garapena

oztopatu egiten dutela dioena. Lehenengo ikuspegiak transnazionalismoarekin bat egiten du; bertan landu ditugu migrazioak eta garapena lantzeko aztertzen diren gai nagusiak, hala nola, bidalketek, itzulera edota migrazio zirkularrek zer rol duten garapena bultzatu ahal izateko. Bigarrenean, dependentziaren teoriaren baitan, *brain drain* fenomenoa edo *garunen ihesaldian* jarri dugu arreta.

Amaitzeko, elkargarapena (*kogarapena*) kontzeptuan sakondu dugu, azken urteetan indarra hartu duen kontzeptua baita eta, migrazioez eta garapenaz gain, elkarkidetzaren arloa ere batu egiten baitu. Ez dugu ahaztu nahi mundializazio edo globalizazio prozesuek asmo horiek erraztu edo ezeztatu egiten ote dituzten aztertzea.

2. Garapenaren eta migrazioen teorien arteko harremana eta bilakaera

Migrazioen eta garapenaren arteko harremana landu nahi badugu, garrantzitsua da, lehenik eta behin, migrazioen azterketari dagokionez teoria garrantzitsuenetan zein hurbilketa egin izan den jakitea.

Nazioarteko migrazioen azterketaren hastapenetan teoria neoklasikoa izango da nagusi 60ko eta 70eko hamarkadak arte. Beste hainbat arlotan bezala, teoria neoklasikoa ikuspegi ekonomikoa izango du ardatz, eta motibazio ekonomikoaren nagusitasuna defendatuko du. *Push-Pull* teoria izenez ere ezagutzen da (Lee, 1966); horrela, bada, jatorrizko lurraldean gertatzen diren faktore ekonomikoek bultzatzen dute arrazionalki norbanakoa migratzera *-push-*, beste lurralde bateko faktoreekin konparatu ondoren *-pull-*. Lurralde batzuetan, eskulan asko eta kapital gutxi dago, eta beste batzuetan, alderantziz: eskulan gutxi eta kapital asko. Migrazioen bidez, ekoizpen-faktoreen birbanaketa gauzatuko litzateke.

Teoria neoklasikoaren arabera, garapen ezberdinak dituzten zonaldeen artean sortzen diren migrazio-fluxuek autoerregulazioa bilatzen dute, eta ondorio baikor eta orokorrak lortuko lituzkete: jatorrizko lurraldeetako desenplegua gutxitzen delako, eta, era berean, lurralde horretan garapenerako aukera berriak sortzen direlako.


Teoria honek askotariko kritikak jaso ditu; jatorri marxista duen *dependentziaren teoriak* zalantzan jarri du teoria neoklasikoaren ardatz nagusia. Ikuspegi honen arabera, garapen eza ez da lurralde jakin batek dituen mugen ondorioa, baizik eta mundu mailako antolakuntza ekonomiko kapitalistarena. Antolakuntza hori zentroko lurraldeek periferikoei ezarritako esplotazioaren bidez gauzatuko da, eta ezberdintasunean oinarritutako elkar truke ekonomikoetan sostengatzen da.

Dependentziaren teoriaren arabera, harreman desorekatu horiek azaltzen dituzte nazioarteko migrazio-fluxuak, eta nazioarteko lanaren banaketan oinarritzen da. Migrazioek jatorrizko migratzaileen lurraldeen azpigarapena kronifikatzea eragin dezakete, garapenerako ezinbestekoa den eskulana lurralde garatuetara mugitzen delako, eta, baldintza horietan, jatorrizko lurralde horien garapena oztopatzen da. Hartara, azpigarapena garapenaren ondorio saihetsezina da. Txanponaren *-prozesuaren-* bi aldeak.

Ikusten denez, migrazioei eta garapenari dagokienez, bi teoria horien hurbilketak oso ezberdinak dira; kontrajarriak, praktikan eta teorian. Teoria klasikoak migrazioen eta garapenaren arteko lotura baikorra egiten du; dependentziaren teoriak, oster, migrazioak garapena lortzeko oztopo gisa ikusten ditu. Era berean, bi teoria horiek hazkunde ekonomikorekin parekatzen dute garapena.

80ko hamarkadan, ikuspegi ekonomizistak izango dira nagusi. Baina, era berean, ikuspuntu hori osatzen eta elementu berriak barneratzen dituzten hurbilketak hasiko dira garatzen migrazioen teorien baitan. Horrela, bada, arreta norbanakoa soilik jarri beharrean, familia edota migrazio-sareen garrantzia ere azpimarratuko da, eta migrazio-fluxuak ez dira irteera eta helmugaren arabera logikaren baitan aztertuko, baizik eta era askoz malguagoan. Ekarpen horien guztien artean, *teoria transnazionalak* garrantzia hartuko du 90eko hamarkadan zehar zein gaur egun, eta berrikuntza horien erakusle izango da.

Teoria honek migrazioen eta garapenaren binomioaren inguruko gogoeta garrantzitsua egin du, eta azken hamarkadatan eztabaida zehaztu duen teorian jo dezakegu (Portes, Guarnizo eta Landolt, 1999). Esaterako, Portes eta De Windek migrazio-fluxuen funtzionamenduaren laburpen teoriko hau egiten digute (1. taula), horretarako, herrialde bidaltzaileak eta hartzaileak bakoitzaren prozesu propioak nola uztartzen dituzten ikusita.



Iturria: Portes eta De Wind (2004, 833.orr.) Solé eta Cachón (2006, 36. orr.).

Ikuspegi honen arabera, eta beste teoria batzuek dioten ez bezala, etorkinek jarraitzen dute jatorrizko lurraldearekin sareak eta ekintza ezberdinak egiten, bi lurraldeen artean kokatuz. Horrela, bada, gizarte transnazionala sortzen da, zeinetan estatu-nazioaren definizioa eta mugak gainditzen diren eta, nolabait, bi lurraldeekiko atxikimendua geratzen den.

Globalizazioaren garapenarekin batera, transnazionalismoak indarra hartu du, eta hainbat aztergai ditu; hala nola, diru-bidalketak, jatorrizko lurraldera epe motz, ertain edo luzera egiten diren bidaiak, migrazio zirkularrak, negozio transnazionalen sorrera, etab. (Moreno eta Aierdi, 2015). Ondorengo taula honetan ere ikus daitezke ekintza transnazional horien barruan kokatutako hainbat aztergai (2. taula).

2. taula. Ekintza transnazionalak

Sektorea				
		Ekonomikoa	Politikoa	Soziokulturala
Instituzionalizazio maila	Baxua	Mugaz gaidiko merkataria informalak	Etorkinek euren jatorrizko lurraldeetako talde zibikoak sortu	Mugaz gaidiko kirol lehiaketa ez profesionalak
		Jatorrizko lurraldean bueltatutako emigranteek sorturiko negozio txikia	Etorkinek euren jatorrizko lurraldeetako talde politikoekin harremanak sortu	Immigranteen egoitzetan dantza-taldeen parte-hartzea
		Distantzia handiko migrazio ekonomiko zirkularra	Diru-bilketak jatorrizko lurraldeetako hautagai politikoentzat	Jatorrizko apaizak helmugako lurraldean bisita egin
	Altua	Inbertsio transnazionalak	Kontsulatuak eta jatorrizko alderdi politikoen egoitzak helmugako lurraldean	Jatorrizko lurraldeetako arte-erakusketak egin
		Turismoaren garapena atzerrian	Jatorrizko lurraldeak nazionalitate bikoitza eman	Artista ezagunen ikuskizunak helmugako lurraldean
		Jatorrizko lurraldeetako bankuen hedapena helmugakoetan	Etorkinak jatorrizko hauteskundeetan aukeratuak izan	Enbaxadak egindako ekintza kulturalak

Iturria: Portes, Guarnizo eta Landolt (1999: 222).

Taulan bertan ikusten denez, transnazionalismoak garapenari zuzenean loturik agertzen zaizkigun hainbat elementu jorratzen ditu, ondorengo ataletan sakonago aztertuko ditugunak, hain zuzen ere.

3. Migrazioak eta garapena: eztabaidaren nondik norakoak eta ekarpen ezberdinak

Migrazioen eta garapenaren inguruko eztabaidan sakondu eta horien mugak zehazteko asmoz, harreman horretan nagusi diren baieztapen edo ildoak plazaratuko ditugu; horretarako, Bob Sutcliffek egindako sailkapenari jarraituko diogu (Sutcliffe, 1998: 146-152). Horren arabera, lau ikuspegi topatu ditzakegu:

1. Migrazioek garapena mugatzen dute.
2. Garapenak migrazioa mugatzen du.
3. Migrazioek garapena sustatzen dute.
4. Garapenak migrazioa sustatzen du.

Ondorengo lerroetan, baieztapen bakoitzari loturiko ezaugarri eta kezka nagusiak landuko ditugu. Jada aurreko ataletan ikusi dugun bezala, migrazioen teoriak baieztapen horien baitan kokatzen dira. Eztabaidaren muturrean lehenengo eta hirugarren baieztapenak egongo liriateke, dependentziaren teoriaren eta transnazionalismoaren bidez, hurrenez hurren. Bigarrenak eta laugarrenak indar txikiagoa izan dute ikerketan; dena dela, hurbilketa interesgarriak dira. Hori horrela izanda, lehenik eta behin, bigarren eta

laugarren baieztapenak landuko ditugu, ondoren beste bietan arreta jartzeko asmoz, nolabait eztabaidaren muturrak zehazten dituzte eta.

3.1. Garapenak migrazioa mugatzen du

Ikuspegi honek bat egin dezake teoria neoklasikoarekin edo modernizazioaren teoriarekin ere. Honen arabera, azpigaratutako lurralde batek bere barne garapen propioa gauzatzen badu eta garapen ekonomikoa lortzen badu, migrazioak mugatu egingo dira, bertan lanpostuak sortuko direlako.

Era horretako hurbilketak ohikoak izan dira jatorrizko lurraldeetan gobernu nazionalistak edota aurrerakoiak egon direnean izan diren diskurtsoetan, eta, sarritan, zaila izan da teoritik praktikarako igaroaldia.

Baina interesgarria da azpimarratzea ez dela soilik jatorrizko lurraldeetan garatu den hurbilketa, helmugako lurraldeetan ere sarri erabiltzen da-eta, hala sektore aurrerakoien nola eskuinekoen artean. Lehenengo kasuan, garapena jatorrizko lurraldeak garatzeko aukera gisa ikusten da, eta, horrela, euren lurraldeetan aukera gehiago izateko bidea. Hurrengo atalean ikusiko dugun elkargarapenaren kontzeptua oso lotuta dago ikuspegi honekin. Immigrazioaren aurka agertzen direnen artean ere ohikoa izaten da diskurtso hori; horrela, etorkinak euren jatorriko lurraldeetan geldituko lirarteke, eta beste lurralde batzuetara gutxiago mugitu.

Planteatzen den ekuazioa gerta daitekeen arren, garrantzitsuena da ea garapen hori gauzatzen den ala ez, eta emaitzak askotan ez dira oso baikorrak. Alegia: azpigaratutako lurraldeen garapena, salbuespenak salbuespen, mugatua den heinean, zaila da hemen azaltzen diren baieztapenak era eraginkor batean ematea.

Are gehiago, askotan, diskurtso horien guztien atzean, bai jatorrizko lurraldean zein helmugakoan, iritzi publikoan eragin eta inpaktu mediatikoa lortzeko helburua dago. Garrantzikoena ez da izaten praktikoki zer gertatzen den, ezpada nola aurkeztu den.

3.2. Garapenak migrazioa sustatzen du

Landuko dugun bigarren ikuspuntu honek aurrekoaren kontrako argudioa planteatzen du, nolabait. Hori horrela izanik, jatorrizko lurraldeetan garapena gertatzeak ez lituzke migrazioak saihestuko, kontrakoa baizik: migrazioak sustatu eta ahalbidetuko lituzke. Hala, hainbat ikerketak planteatzen dutenez, azpigaratutako lurraldeetan egoera ekonomiko hobea edo ikasketa-maila altuagoa dutenek migratzeko aukera gehiago dituzte beste talde batzuek baino. Era berean, garapena mugatua izan den hainbat lurraldeetan migrazioak handitu egiten dira, eta soilik garapen oso altua dagoenean txikitzen dira migrazio-fluxuak (Clemens, 2014).

Ikuspegi honek zera planteatzen du: migratzen dutenak ez dira jatorrizko lurraldean pobreenak edo okerren daudenak, horiek ezin dute-eta. Eta gutxieneko garapena badago, migratzeko aukerak handitu egiten dira, baldin eta garapen hori mugatua bada.

Zentzu horretan, aurreko ikuspuntuaren eta honen arteko ezberdintasuna ez da hainbeste teoria mailakoa, baizik eta praktikari dagokiona. Argi dago lurralde batean garapena handia bada, emigrazio-fluxuak jaitsi egingo direla; baina hori gertatu ezean, eta garapena txikia bada edo trantsizio-garaian, migrazioa, eragotzi beharrean, sustatu egin daiteke.

3.3. Migrazioek garapena mugatzen dute

Jada adierazi dugun bezala, ikuspegi honen arabera, migrazio-fluxuek jatorrizko lurraldeen barne-garapena oztokatzen dute, nagusiki eskulana beste lurralde batzuetara joaten delako eta horrek erabat baldintzatzen duelako lan-merkatu egokia sortzea. Dependentsiaren teoriak edo ikuspegi neomarxista ugarik bat egiten dute hurbilketa honekin.

Hortaz, migrazioen ondorioz, hainbat lurraldetan deskapitalizazio prozesua gertatuko litzateke eta populazio aktiboaren kopurua murriztuko litzateke. Gai horren harira, askotan planteatu da formakuntza altuko pertsonen deskapitalizazioa gertatzen dela nagusiki, *Brain Drain* edo *garunen ihesaldiaren –fuga de cerebros–* fenomenoak.

Tradizionalki, migrazio kualifikatuak Hegoaldetik Iparraldera egiten dira nagusiki, eta deskapitalizazioaz gainera, azpimarratzen den beste elementua hau da: aberatsak herri pobreek eginiko inbertsioaz baliatzen dira; halaber, hezkuntzan egindako gastu horren itzulerarik ez dago, eta itzulera hori, gainera, lurralde garatuen esku gelditzen da.

Hona hemen fenomeno horren gaineko hainbat datu. Maila kultural handia duten Ghana eta Sierra Leonako % 30 atzerrian bizi da. Era berean, goi-mailako ikasketak dituzten jamaikarren % 75 Estatu Batuetan bizi da (Newland, 2006: 62).

Brain Drain kontzeptua dela-eta eztabaida handiak egon dira, horrek garapena mugatu edo sustatu ote dezakeen. Horrela, bada, azken hamarkada hauetan, eztabaida *Brain Drain* vs. *Brain Exchange* delakoaren artean kokatu da. Beste hitz batzuekin esanda, batzuek deskapitalizazioaren ideia azpimarratzen dute (Delgado Wise, 2004); beste batzuek, ordea, langileen desplazamenduen bidez garapena lor daitekeela planteatzen dute, ezagutza eta kapitalen trukea egon daitekeela defendatuz. Azken iritzi horren aldekoa da Alejandro Portes (2011), kualifikatutako langileak garapenerako palanka izan daitezkeela planteatzen baitu, betiere, jatorrizko lurraldeak baldintza egokiak eskaintzen baditu, eta, horretarako, sare komertzial edo kapital sozialen eraikuntzaren beharra azpimarratzen da (Newland, 2006).

Deskapitalizazioaren ideia nagusi izan bada ere migrazioen azterketan azken hamarkadetan, transnazionalismoaren eskutik, bigarren ikuspuntuak indarra hartu du azken urteetan. Teoria edota hipotesietatik harago, egin diren ikerketa gehienak ez dira erabat argigarriak, eta, sarritan, ondorio kontraerriak defendatzen dituzte (Pellegrino, 2001).

Askotan, soilik garunen ihesaldiari buruz hitz egiten da, baina ezin da ahaztu formakuntza altuko migratzaile mota asko dagoela, eta, beraz, garunen galeraz gain *eskuen ihesaldia* ere badagoela. Lurralde askotan ikus daitezke horrelako fenomenoak, zeinetan nekazaritzarako lur onak izan daitezkeenak lantzeko langile nahikorik ez dagoenez, nolabaiteko lan-basamortuen zonaldeak eraikitzen diren; esate baterako, Latinoamerikako hainbat eremutan ikus daitezke horrelako egoerak.

Era berean, eta pentsa daitekeen moduan, jatorrizko lurraldeetako deskapitalizazio horiek ez dute soilik eragiten garapenean, lan-merkatuan edota hazkunde ekonomikoaren bilakaeran; beste hainbat arlotan ere ondorioak izaten dituzte. Besteak beste, egitura demografikoan, emigrazio-guneak diren esparru geografikoetan adinekoren tarteak ehuneko handiagoa hartzen du, eta nolabaiteko *herri fantasmak* sortzen dira (Portes, 2011); besteetan, aldiz, familia egituran eragina du, ume askoren gurasoak beste herri batean bizi direlako.

3.4. Migrazioek garapena sustatzen dute

Ikusi ditugun lau hurbilketatik, migrazioaren eta garapenaren arteko lotura baikorrena egiten duena hauxe izango litzateke, eta, hein handi batean, transnazionalismoarekin bat egiten du. Jada adierazi den moduan, ikuspegi honen defendatzaileentzat, migrazio-fluxuak garapenerako bultzada izan daitezke, baldin eta baldintza batzuk betetzen badira. Horrela, bada, aurreko teoretatik aldentzeaz gainera, jatorrizko lurraldeen garapenerako migrazioak tresna garrantzitsua izan daitezkeela planteatzen da. Halaber, hurbilketa honen arabera, migrazioek lurraldean gelditzen direnentzako aukerak zabaltzen dituzte, bai lan arloan zein garapen ekonomikoari dagokionez.

Oro har, ezaugarri ezberdinak azpimarratzen dira, kapital ezberdinei loturikoak, hain zuzen ere:

- Kapital ekonomikoa: migrazioen bidez kapital ekonomikoa metatzen da, eta, horri esker, inbertsioak eta garapena sustatu daitezke jatorriko lurraldean, batez ere bidalketen bidez.

- Kapital soziala eta giza kapitala: migrazioen bidez beste leku batzuetako ezagutzak eta harremanak gauzatzen dira. Migrazio zirkularra edota itzulera gertatzen den dinamiketan, ezagutza eta harreman horiek oso baliagarriak izan daitezke jatorriko lurraldean berrikuntzak bultzatzeko, bai arlo ekonomikoan zein sozialean.

Ondorengo azpiataletan gehiago sakonduko dugu arlo horren ezaugarri nagusietan, arreta berezia jarriz bai bidalketan zein migrazio zirkular eta itzulera prozesuetan.

3.4.1. Diru-bidalketak, bidalketak

Diru-bidalketak (aurrerantzean, *bidalketak*) edota, beste era batera esanda, etorkinek euren jatorrizko lurraldeetara bidaltzen dituzten diru-kopuruak elementu oso garrantzitsua izaten dira hainbat herritan.

Bidalketen inguruko datu zehatzak ematea zaila bada ere, sarritan bide informalaren bidez gauzatzen direlako, Munduko Bankuaren datuen arabera, 2017. urtean garapen-bidean zeuden lurraldeek 466.000 milioi dolar jaso zituzten bidalketen bidez; kopurua igo egin zen aurreko urteekin alderatuta. Bidalketa kopuru handienak jasotzen dituzten lurraldeak hauek dira: India -69.000 milioi-, Txina -64.000-, Filipinak -33.000- eta Mexiko -31.000-.

Kopuru horiek garapenerako elkarkidetzarako erabiltzen diren baliabide ofizial guztiak baino askoz ere gehiago dira, eta, zenbaitetan, bidalketak hainbat lurralderen Barne Produktu Gordinaren kopuru garrantzitsua izaten dira. Horiek dira, esaterako, Haiti -BPGd-aren % 29,4-, Moldavia -% 20,6-, El Salvador -% 18,4-, Senegal -% 13,9- edota Maroko -% 6,4- (World Bank, 2018).

Latinoamerikako zenbait lurraldetan ere bidalketen garrantzia oso handia da, eta, sarritan, Erdialdeko Amerikako lurralde gehienek kasuan bezala, euren dibisa-iturri nagusia izaten da. Mexikon, esate baterako, bidalketak daude hiru dibisa-iturri nagusien artean, petrolioa eta enpresa makiladoreen esportazioekin batera.

Hori guztia ikusi ondoren, argi gelditzen da nazioartean, zenbait lurralde eta eremutan, bidalketak oso garrantzitsuak direla arlo ekonomiko zein sozialean. Dena dela, horien ahalmenaren inguruan ez dago adostasunik. Kasu honetan ere, jada beste hainbat gaitan ikusi dugun bezala, ikuspegi ezkorra zein baikorra nagusitzen dira bidalketen eta garapenaren arteko lotura aztertzen denean.

Dependentziaren ikuspegiaren arabera, bidalketek gatazka areagotu eta prezioen gorakada bultzatzen dute jatorrizko lurraldean. Era berean, bidalketen aurrean diru-iturri alternatiboak saihesten direnez, emigrazioak emigrazio gehiago ahalbidetuko luke, nolabaiteko sorgin-gurpila sortuz. Horrek guztiak tokiko ekonomia suntsitzea eta gizarte-egiturak ahultzea eragingo luke (Reichert, 1981).

Horren aurrean, transnazionalismoaren garapenarekin batera, 80ko hamarkadaren bukaeratik aurrera, indarra hartu du kontrako ikuspuntuak, eta bidalketaren eta garapenaren arteko lotura baikorra azpimarratuko du. Horren arabera, bidalketak jatorrian dauden gizarte-ezberdintasunak txikitzeko eta garapen ekonomiko bultzatzeko tresna egokia izango liriteke. Nazioarteko erakunde ekonomiko batzuek ere ikuspegi hori hartu dute, Mundu Bankuak, esaterako.

Hiru dira, nagusiki, bidalketek sor ditzaketen onurak (Massey eta Parrado, 1998):

- Inbertsio produktiboak bultza daitezke.
- Kontsumo ez produktiboaren bidez -kontsumoa- eragin biderkatzailea sor daiteke tokiko ekonomietan.
- Klase-desberdintasunak murrizteko tresna izan daitezke.

Hiru onura horiek gerta daitezkeen arren, ikuspegi baikorregia izan daiteke pentsatzea automatikoak direla eta horren bidez zirkulu bertutetsua egon daitekeela. Hori dela eta, azken urteetan tarteko ikuspegi bat ari da gailentzen, zeinetan, bidalketen onurak aitortzeaz gain, horien mugak eta gabeziak ere azpimarratzen diren.

Lehenik eta behin, eta bidalketen eta inbertsio produktiboen arteko harremanean arreta jarriz, esan beharra dago bidalketen kopuru nabarmenena familiaren mantenurako egiten dela eta inbertsio produktiboetan erabiltzen den kopurua oso txikia dela. Mexiko eta Erdialdeko Amerikaren kasuan, mantenurako erabiltzen da bidalketa guztien % 80tik gora, eta lurralde pobregoetan, ehuneko hori % 95era ailegatzen da, El Salvadorreko kasuan, esate baterako. Horrenbestez, inbertsio produktiboetan erabilitako kopurua % 5etik beherakoa da (CEMLA, 2017: 20).

Zentzu horretan, egile batzuek bidalketak etorkinen aurrezki gisa hartzen badituzte ere, egokiagoa dirudi familia-soldatatzat hartzea, eta horregatik erabiltzen da, hain zuzen ere, batez ere mantenurako eta ez beste gauza batzuetarako. Hori ere oso argi ikusten da Mexikoren kasuan, krisi ekonomikoak pairatu dituen bidalketen kopura handitu egin baita (Canales, 2005).

Gehienetan, bidalketen bidez aurrera eramaten diren enpresak oso txikiak izaten dira, eta bizirauteko asmoa izaten dute; beraz, oso zaila da bide horretatik garapen integrala bultzatu ahal izatea eremu geografiko jakin batean. Horren harira, ezin da ahaztu bidalketak, gehienetan, aldiro bidaltzen diren diru-kopuru ez oso handiak edota ez handiak direla. Horrek, inbertsiorako gaitasuna mugatu ez ezik, berriz ere bidalketen soldata izaera –ez inbertsiorako aurrezkiak– azpimarratzen du.

Sarri, inbertsio produktiboak bultzatzeko bidalketen ahalmena azpimarratzen denean, ez da kontuan hartzen horiek azken aukera direla inbertsio publiko zein pribatuak oso mugatuak diren eremuetan. Zentzu horretan, bidalketei beste batzuen ardurak eskatzen zaie, eta oinarri bihurtzen dira osagarri izan beharko luketenak. Ez dirudi bidalketak izan daitezkeenik garapenerako zein inbertsioen ahuleziari eta gabeziari aurre egiteko tresna nagusia; benetako garapen politikak behar dira (Castles eta Delgado Wise, 2007), ez oso mugatua den praktika. Are gehiago, ezin dugu ahaztu bidalketen fluxuak aldakorrak direla denboran. Helmugako lurraldean krisi ekonomikoa pairatzen bada edota familia berriz elkartzen bada, bidalketen kopurua jaitzi egin daiteke (Iglesias et al., 2015), besteak beste.

Aipatu den beste ahalmen bat ekonomiaren funtzio biderkatzailearena da. Egile batzuek elementu hori asko azpimarratzen badute ere, egin diren ikerketek funtzio hori antzematen dute, baina ahalmena mugatua da, eta, askotan, indarra galtzen du denbora igaro ahala.

Antzera gertatzen da gizarte-ezberdintasunak murrizten dituen ideiarekin. Bidalketek familia-gastuak gehitzea ahalbidetzen duten heinean, ongizate ekonomiko eta soziala handiagoa da; hala ere, hortik gizarte-mugikortasuna egon daitekeela ondorioztatzea gehiegizkoa da. Izan ere, horretarako, kapital ekonomikoaz gainera, beste kapital batzuk beharrezkoak dira; esate baterako, giza kapitala edota kapital soziala.

Laburbilduz, bidalketak elementu positiboa izan badaitezke ere, ekuazioa ez da automatikoa, eta argi dago: lurralde baten garapena ezin da bidalketetan oinarritu. Sarritan, garapenerako politiken basamortuan bidalketak agertzen zaizkigu tresna bakarra balira bezala, baina horrek ezin gaitu eraman nolabaiteko ilusioen argudioetara, bakarra izateak ez baitu esan nahi bidalketak direnik tresna nagusia; benetako politikak eta eredia behar dira garapenerako, eta hori, sarritan, ez da egoten jatorrizko lurraldeetan.

3.4.2. Itzulera eta migrazio zirkularrak

Bidalketak diru- eta kapital-fluxuak dira, baina migrazioak eta garapena lotzen dituen ikuspuntuaren arabera, migrazioen ondorioz dauden pertsonen fluxuek ere garapena bultzatzen dezakete, eta, globalizazioarekin, harreman horiek areagotu egiten dira. Arlo horretan, bi fenomeno nagusi aztertzen dira: itzulera –erretornoa–, alde batetik, eta migrazio zirkularrak, bestetik.

Zaila da, askotan, migrazio-fluxuen uneak era isolatuan aztertzea, eta egokiagoa da *continuum* baten arabera ulertzea, zeinetan mutur batean behin betiko migrazioa kokatzen den, eta beste muturrean, behin betiko itzulera. Era berean, kategoria bakoitza era malguan ulertu behar da. Hasieran behin betiko itzulera izan daitekeena migrazio zirkular bilaka daiteke. Hori dela eta, nahiz eta gure hurbilketan itzulera eta migrazio zirkularrak bereiziko ditugun, argi eduki behar dugu, askotan, ez daudela batere zehaztuta egoeren arteko mugak.

Itzulerari dagokionez, azken urteetan migrazioen ikerketetan indarra hartu duen gaia izanik, garapenarekin batera landu izan da. Kasu honetan planteatzen dena zera da: itzultzen den etorkinak helmugako lurraldean lortutako ezagutzak, trebetasunak eta harremanak ditu, eta horiek baliagarriak izan daitezke jatorrizko lurraldean garapena bultzatu ahal izateko –bidalketak, esaterako–, baina, kasu honetan, kapital ekonomikoa baino, giza kapitala edota kapital soziala azpimarratzen da.

Hainbat lurraldetan itzulera eta ekonomia produktiboa indartzeko programak jarri dira abian; edonola ere, oro har, horien arrakasta oso mugatua izan da, hain zuzen ere, hainbat elementu edo baldintza ez direlako kontuan hartu (Moreno eta Álvarez, 2017).

Beste hainbat kasutan bezala, teoria egokia izan badaiteke ere, errealitateak ez du beti bat egiten hipotesi horiekin. Horrela, bada, onartutzat jotzen da itzultzen den etorkina beti arrakastaren ondorioz itzultzen dela, eta hori ez da beti horrela. Are gehiago, azken urteetan lurralde garatuetan egon den krisia dela-eta, itzulera asko porrotaren ondorio izan dira, eta, nolabait, bizirik irauteko estrategia gisa gauzaturikoak. Testuinguru horretan, adibidez, kapital ekonomikoa oso urria izango da edo ez da egongo, eta zaila izango da inbertsio produktibo bihurtu ahal izatea.

Era berean, ezin dira alde batera utzi itzuli diren horientzat jatorrizko lurraldeak eskaintzen dituen aukerak; akaso, trebetasun eta harreman onak dakartzate helmugako lurraldetik. Batzuetan, azpiegitura ahulen ondorioz edota marko instituzional desegokiak direla-eta, zaila izaten da inbertsioak aurrera eramatea eta horien gutxieneko bideragarritasuna bermatzea.

Beraz, kasu horretan ere, teoriaren eta praktikaren arteko distantzia oso handia izaten da, eta, zenbaitetan, helmugako lurraldean eskuratu diren kapitalak ezin dira kapitalizatu jatorrizkoan, eta, horrenbestez, itzuleraren ahalmenak, gutxienez, mugatutzat jo behar dira.

Itzulerari buruz hitz egin ondoren, migrazio zirkularren fenomenoaz aztertzerako pasatuko gara. Migrazio zirkularren fenomenoan aurreikusten da jatorrizko eta helmugako gizartearen artean –edota hirugarren lurralde baten artean– mugimendu eta aldi baterako migrazio-fluxu ezberdinak egon daitezkeela. Globalizazioarekin batera handitu ahal izan den fenomenoaren arren, argi izan behar dugu ez dela ohikoena, eta gehienek jatorrizko lurraldearekin harremanak izaten jarraitu arren, oso gutxitan joaten direla; gehientsuenetan, oporretara edota bisita motzak egitera.

Dena dela, nahiz eta orokorra izan ez eta orokortzeko aukerarik izan ez, migrazio zirkularren edo epe baterako migrazioen kasua interesgarria da, migrazioak eta garapena uztartzeko aukera eskaintzen baitu. Hala, gero eta egile gehiagok mahaigaineratzen dute migrazio zirkularren bidez jatorrizko lurraldearen garapena susta daitezkeela (Giménez, 2004).

Batetik, ez dago deskapitalizazio laboral zein demografikorik, etorkin zirkularra bere herrira bueltatzen delako eta beraren familia oraindik ere bertan bizi delako. Bigarrenik, familia horien kontsumo ahalmenak zeharkako eraginak ditu ekonomian, funtzio biderkatzailea, esaterako. Eta, azkenik, lor daitezkeen aurrezkiak zein lan-trebakuntzak ekoizpenerako erabil daitezke (Portes, 2011: 49).

Jada ikusi den bezala, horiek dira, bidalketei dagokienez, azaltzen diren dohainak, bai eta ahalmen horiek ez direla automatikoak ere, eta, askotan, pobreziaaren aurreko erantzuna baino ez direla, eta ez garapen-bidea. Dena dela, badirudi, migrazio zirkularren bidez, horiek gauzatzeko aukera handiagoa izan daitezkeela, jatorriko zein helmugako lurraldeen arteko lotura etengabekoa eta estua izanez gero.

Hortaz, migrazio zirkularrek eskain ditzaketen bi norabideetako onurak ez dira automatikoak, eta testuinguru instituzional zein sozial egokiak behar dira horiek bermatzeko. Era berean, bi norabideetako onurak lor daitezkeen arren, onura horiek ezberdinak izan daitezke, eta, orokorrean, egin diren ikerketa enpirikoetan jatorrizko zein helmugako lurraldeak garaile atera arren, *garaileago* izaten da bigarrena.

Pentsa daitekeen moduan, migrazio zirkularrak jatorrizko eta helmugako lurraldeen artean sortzen den harremana du ardatz, eta erabat lotzen da *elkargarapena* kontzeptuarekin, alegia, bi eremu geografiko horiek izan behar dute garapena sustatu behar dutenak. Horrela, bada, gero eta lan gehiagok azpimarratzen dute elkargarapenaren garrantzia migrazioei eta garapenari buruz hitz egiterakoan, ondorengo atalean ikusiko dugun bezala.

4. Elkargarapena

Migrazioen eta garapenaren inguruko eztabaidetan, azken urteetan, elkargarapena edo *ko-garapenak* kontzeptuak indar handia hartu du, eta migrazioak eta elkarkidetzarako garapena ere gehitu zaizkio. Agenda publikora igaro den kontzeptua da, eta gizarte-eragileek ere elkargarapenari buruz dihardute.

Elkargarapena 80ko hamarkadaren bukaeran hasi zen garatzen. Garai hartan, etorkinen elkarte batzuk, Frantzia bereziki, euren jatorrizko eskualdeekin elkarkidetzarako hainbat programa martxan jartzen hasi ziren, eta, ondoren, ikertzaile eta elkarten arreta jaso zuten ekimen horiek. Elkarte horiek zein bertan parte hartzen zuten pertsonak, jatorrizko lurraldearekin harremana mantentzeaz gain, arduraz azaltzen zuten jatorrizko lurraldearen garapenarekiko.

Ikusten denez, hasieran gizarte-erakundeek bultzatutako ideia izan zen, nahiz eta azkar igaro zen arlo instituzionaletara, bai diskurtso mailan zein hainbat programa publikotan. Horretarako, oso garrantzitsua izan zen Sami Naïr immigrazio-adituaren ekarpena –bera izan zen migrazio eta elkargarapeneko arduraduna Frantziako gobernuan 90eko hamarkadaren bukaeran–. Bide horretatik, kontzeptua nolabait instituzionalizatu da Europar Batasunean, eta Espainia ez da salbuespen, bere hainbat arautegi eta planetan elkargarapena barneratu baitu.

Naïrren hitzetan, elkargarapena “immigratioa eta garapena uztartzeko proposamen bat da, eta, horren bidez, bai jatorrizko lurraldeak zein helmugakoak migrazio fluxuen onurak lortzen dituzte. Bi lurraldeen artean adostutako harremana da, eta helburua da helmugako lurraldeak lortzen dituen onurak ez izatea galera jatorrizkoarentzat” (Naïr, 1997: 1). Hau da, garapen/azpigarapen bikotearen barne-logika hilgarria apurtzea.

Ikusten denez, elkargarapenak mahaigaineratzen du, transnazionalismoak nola, migrazioek bi norabideetako onurak lorraraz ditzaketela, eta hainbat ekimen aurreikusten dira:

- Helmugako lurraldeetan etorkinei formakuntza eskaintzea, horrela, itzultzerakoan, garapenerako eragile izan daitezen.
- Prestakuntza eta laguntzen bidez jatorrizko lurraldeetara itzultzen diren etorkinen birgizarteratzea sustatzea. Borondatezko itzulerarako programa ofizialen bidez gauzatu izan da sarri.
- Etorkinek lortutako aurrezkiak jatorrizko lurraldeetan inbertsio produktiboetarako erabiltzea. Programa bereziak daude horretarako. Mexikon, esaterako, 3 x 1 inenez ezagutzen den programa dago. Programa horretan, etorkinen elkarteek inbertsioaren diru-kopuru bat ezartzen dute, inbertsio motaren arabera guztizkoaren % 25 edo % 50, eta gainerakoa, gobernu federalak eta gobernu erregional zein udal mailakoek.
- Espainian ere mota horretako ekimenak bultzatu dira, adibidez, Gizarte Segurantzak langabezia-prestazioa kapitalizatzeke aukera eskaini zienean itzuli behar ziren etorkinei, baldin eta inbertsio produktiboetan erabiltzen bazen.

- Mikrokredituen sustapena, inbertsio produktiboak jatorrian egin ahal izateko.
- Elkarkidetzarako garapenerako programak etorkinen jatorrizko lurraldeetara zuzendu.

Antzeman daitezkeen moduan, elkargarapenaren bilakaeran norabide ezberdinak suma daitezke. Alde batetik, behetik datorrena eta etorkinen elkarteek bultzatu dutena; eta, bestetik, goitik garatu dena, gobernuak eta nazioarteko garapenerako erakundeak buru direla. Azkenaldian, tartean kokatzen den bidea ere izango genuke, Gobernu Kanpoko Erakundeek sustatutakoa eta garapenerako elkarkidetzarekin harreman estua duena.

Arrazoizkoa den moduan, hurbilketa bakoitzak esanahi ezberdina eman diezaiolke kontzeptuari, eta oso antzekoak izan daitezkeen baieztapenen atzean helburu oso ezberdinak egon daitezke; horrenbestez, ezin dugu era inozo batean pentsatu elkargarapena garatzen duten eragile guztiak ari direnik pentsatzen era orekatuan gauzatzen den bi norabideetako garapenean.

Elkargarapenaren defendatzaile batzuentzat, azken finean, helburua da migrazio-fluxuen kontrola ezartzea; askotan, ikuspegi instituzionalean ikus daiteke hurbilketa hori. Horretarako, hainbat neurri ezartzen dira:

- Garapenerako elkarkidetz-politiken baliabideak jatorrizko lurraldeetara bidera daitezke; horren atzean egongo litzateke dauden fluxuen etena edo gutxienez baretzea.
- Aurrekoen edo beste neurri batzuen bidez, immigrazio irregularra jatorrizko lurraldean kudeatzea, eta ez helmugakoan. Europar Batasunaren eta bere mugetako lurraldeen artean egin diren hainbat akordio horren isla nabaria dira, Marokorekin edo Turkiarekin egin direnak, adibidez.
- Jatorrizko lurraldean, helmugako administrazio edota enpresariak beharrezkoak diren langileen aukeraketa egitea; sarritan, migrazio zirkularreko programen baitan kudeatzen da.
- Elkargarapenaren izenean, behin baino gehiagotan etorkinak euren jatorrizko lurraldera itzultzeko programak jarri dira abian, baina ez hainbeste garapena eta zirkulartasuna bultzatzeko asmoz, ezpada helmugako lurraldean dagoen etorkin kopurua murrizteko eta bertako iritzi publikoari begirako neurri mediatiko gisa. Hori izan da, kasu askotan, bilatutako xedea.

Gainera, ezin dugu ahaztu elkargarapenaren arloko finantzaketaren zatirik handiena helmugako lurraldeek ematen dutela; horrek haien mesederako izan daitezkeen kudeaketa ahalbidetzen du, eta, ondorioz, bi norabideotan dagoen asimetrietan sakondu egiten da.

Laburbilduz, elkargarapenaren ideiak migrazioen eta garapenaren arteko harremanaren eztabaida berriztu du, eta elementu berriak barne hartzen ditu. Dena dela, ez du eztabaida agortzen, eta beste hurbilketek dituzten gabezia edota arrisku berberak ere plazaratzen ditu, hurrengo atalean eta ondorioen atalean sakonago ikusiko dugun bezala. Kogarapena zentzuzko ideia desiragarria da, baina ezin du saihestu gertatzen deneko testuingurua. Borondate ona ez da nahikoa garapenaren sakoneko funtzionamenduaren logika ezabatzeko. Mota honetako teoriak behin eta berriz ikusiko ditugu; forma ezberdinekin formulatuko dira, baina etsai handi bat dute: garapenak *0 batuketa jokoaren* izaera du, batek irabazten duena beste norbaitek galtzen du, eta alderantziz. Are gehiago, aro globalean.

5. Globalizazioaren eragina

Modernizazioaren teoria inozoak eta aurrerabidearen ideia itxaropentsuak *eskailera* bat asmatu zuten, eta irudikatu zuten gizarte atzeratuek aurreratuek igotako eskailera beretik eginiko ibilbideak toki berera eramango zituela; hau da, industrializazio ekonomikora, modernizazio sozialera eta demokrazia politikora. Imitazio kontua baino ez zen.

Eskema horren kontra, esan bezala, dependentziaren teoria eta mundu-sistemarena agertu ziren, baina itxaropena ez zen galdu. Izan ere, aurrerabidearen ideia ukatuta, gizadia umezurtz geratzen da. Ideia hori

da, Nisbet soziologo handiaren ustez, gizakiak sekula sortu duen ideiarik garrantzikoena, aurrerabidea esperantza delako, eta, beraren ustez, artez edo moldez, beti haren ordezkioak bilatzeari ekingo dio gizakiak (Nisbet, 1981).

Edonola ere, ebidentzia ukaezin berri batek aurrekoa ordezkatu zuen: garapena eta azpigarapena ez dira bi errealitate banandu, errealitate beraren nahitaezko bi txanpon baino; batak bestea sortzen du. Beraz, ezin eskailera berdintzailerik eraiki. Amets hori amesgaiztoa zen, perspektiba berritik ikusita.

Globalizazioaren aurreko garaietan –eta ez gara sartuko ea globalizazioa fenomeno berria edo antigoalekoa den, ez baita eztabaidagai dagoena testu honetan–, Estatu-nazioak, hala politika “nazionalak” bultzatuz –modernizazio-eskema edo nazio-askapeneko bidez– nola blokeen politiken bidez, zeregin bat zeukan oraindik. Neoliberalismoaren bultzadaz, globalizazioaren abiadura azkartu egin da, eta garraioen iraultzak beste immigrazio panorama batean jarri gaitu. Eta, noski, beste errealitate ekonomiko batean, non alde zurretik zaila zen elkargarapen integrala ezinezko bilakatuko baita aurrerantzean.

Modernotasunaren eta globalizazioaren artean errotiko desberdintasun bat dago. Teorian, behintzat, modernitateak eta modernizazio-prozesuek, bide ezberdinetatik, asmo nagusi hau zuten: gizadi osoa –herrialde guztiak, gizarteetako sektore guztiak– orduan gizarte modernotzat hartzen ziren gizartearen parametroetan sartzea. Uste zen gizarte industrial bati –halaber, gizarte urbano bat– sistema politiko pluralista, laikotasuna eta politikoki hiritargoarekiko oinarri juridiko bermatzailea eta demokratikoa zegozkiola. Are gehiago, modernotasuna endogenoa edo exogenoa izan zitekeen, baina munduaren ikuspegi eta praktika meritokratikoen geografia-mugikortasun mugagabea ere bazekartzaten, eta, noski, munduko pertsona guztientzako goranzko mugikortasun irekia. Esan dugun moduan, eskailera modernizatzailea igotzea zen helburua. Lehenago igota zituzten herrialde aurreratuek, orain gainerakoei zegokien. Areago, gainerakoa berez etorriko zen.

Globalizazioak amets integratzaile hori suntsitu, eta eskusioa jartzen du lehen inkorporazioa zegoen tokian. *O batuketako joko*a ezarri du globalizazioak, eta horrek ezindu egiten du inkorporazio integral eta unibertsalaren mezua eta erretorika. Globalizazioak konexio selektibo gisa funtzionatzen du: aukeratuak klubean sartzen direnak eta sartzen ez direnak; aukeratuak eta baztertuak; sartzen ez dena betiko baztertuta geratzen da. Kasu horretan, Manuel Castellsek (1992) esango zuenez, hobe zen globalizazioaren kaltearen eskarmentua, erasan ez izanarena baino. Bere konexio/deskonexio selektiboaren ideien bidez zera esaten du: “globalizazioak planeta osoari erasaten dio, baina sistema globalean ez dago planeta osoa txertatuta... Egitez, jendartearen gehiengoa ez dago barruan: globalki balorea ematen diona bakarrik konektatzen da, eta interesik ez duena deskonektatua geratzen da”.

Beraz, 80ko hamarkadaren hasieratik politika neoliberalaren indarrarekin ezartzen diren politika ekonomikoek ezindu egiten dute praktikan immigrazioak garapenean izan lezakeen eragin positiboa (Stiglitz, 2007). Castellsen ideian beste bide batetik sakonduz gero, David Harveyren ustez, egungo egoera ekonomikoan eragiten duen logika eraginkorra “desjabetzeagatik metaketa ekonomiko” da (Harvey, 2007). Hori horrela izanik, migrazioek ez dute garapenean jokatzekeko modu eraginkorrik; are gehiago, egoera ekonomikoak berak sortzen duen desjabetzearen ondoriozko fluxuak lirateke gaurkoak. Hain da handia egun Afrika edota Erdialdeko Amerikak eta Hego Amerikak bizi duten desjabetzea eta ustiapena, ezen migrazioak saihetsezinak baitira. Estraktibismoa, kasu.


Aurretik adierazi dugun moduan, transnazionalitatea medio, Mexikoren eta AEBen arteko harremanak bide berritzaile batzuk ezarri ditu, estatu igoerak jabetu direnean kanpoan duten migrazioaren balio ekonomikoaz, baina, oro har, esan den moduan, egituretan eragin eskasekoak izan dira.

Edonola ere, oso interesgarriak dira Amerika eta Afrikako kasuak bereiztea. Azken bi hamarkadetan, Hego Amerikan oso egoera berezia bizi izan da, historikoki lehenengoz Estatu-nazio garatzaileak nagusi izan direlako oso estrategia eta lidergo ezberdinekin. Lehenengoz diogu, Estatu-nazioa eraiki nahi izan dutelako, biztanleria oso xede izanik; neomodernizazioa bizitzeko asmoa. Dinamika horiek zeharkako lotura izan dute immigrazioarekin gehienez ere, nahiz eta Ekuadorrek, esate baterako, argiago izan duen lokarri hori. Gainerakoetan (Brasil, Bolivia, Txile, Argentina, Paraguai, Uruguai...), politika migratzaileak izan dira nagusi. Baita beste bideren bat garatu duten estatu batzuetan ere: Kolonbia, adibidez.

Puntako ikertzaileek garai honen ezaugarri diren faktoreen artean dago migrazio *fronterizatua*. Mugak nagusitu dira. Mugek, migrazio-sistemak ugaritzeak eta bertakoek migratzaileen kontra erakutsitako jarrera eta errefusatzek migrazioen aro berri bati ematen diote hasiera: *"needed but not welcome"* leloarekin deskribatu daiteke. Horrek aurrekoa ordezkatu du: *"wanted but not welcome"*. Gakoa *but not welcome* dago. Gako oso zurruna. Ondorioz, alde batetik, pertsona-migrazioak gero eta mugatuagoak dira, eta, beraz, kontraesan handi bat ari da nagusi bihurtzen: gero eta herrialde gehiagok (batzuk aldi berean igorle, igarobide eta hartzaile direla) hartzen du parte migrazio-sistemetan, eta, aldi berean, gero eta kontrol handiagoa ezartzen da.

Paradoxa horri globalizazioak dakarren ekonomiaren eta politikaren arteko dibortzioa gehitu behar diogu. Estatua eta Politika lokalak dira; ekonomia, aitzitik, globala da; lehenek, Estatu handi eta erabakigarri batzuen kasuetan izan ezik, ez dute indarririk ekonomian eragin ahal izateko. Beraz, migrazio-prozesuak bideratzeko eta horiekin barne-garapena bermatzeko aukerarik gabe geratzen da eremu politikoa. Nahiago dute migrazioak mugiaraztea, barne-presio soziala ezabatu edo saihestea, ekonomikoki barruan eragina izan dezaten lortzea baino. Herrialde askok duen migrazio-arazoa euren barneko presioa bideratzeko moduan datza. Afrika iparraldeko herrialdeen biztanleriaren % 29,7 15 urtetik beherakoa da. Afrika osoko adina antzekoa da. Beraz, migrazioa alde batetik doa, eta garapena, bestetik. Are gehiago, une jakin batean, hobe da biztanleriaren zati bat irtetea barruan geratzea baino, arazo sozialak politizatu ez daitezen.

Egoera, oro har, okerra bada, gehiago zailduko da, Rodriken trilemaren ondorioz. Rodriken ustez, "hiperglobalizazioak nazio-politikaren txikitzea eskatzen du, bai eta teknokratik masen eskaeretatik isolatuta egotea ere". Funtsean, ekonomialari honen arabera, Estatu batek aukera hauek egin behar ditu: edo subiranotasuna edo globalizazioa edo demokrazia; bi baino ezin ditzake aukeratu, hirurak ez baitira bateragarri.



Iturria: Rodrik, Dani (2011): *Las paradojas de la globalización*. Antoni Bosch, Bartzelona.

Hau da, mundu globalizatu batean, ezin da ekonomikoki parte hartu, demokrazia bere osotasunean garatu eta, gainera, Estatu subiranoa izan. Bestela esanda:

- 1) Globalizazioaren eta demokrazia globalaren alde joka dezakegu, baina demokrazia oraindik ez da existitzen eta ordena kosmopolita bat eskatzen du; horrenbestez, subiranotasuna alde batera uzten da.

- 2) Subiranotasuna eta demokrazia hauta ditzakegu, baina munduan integratu gabe eta joera autarkikoarekin.
- 3) Globalizazioaren eta subiranotasunaren aldeko hautua egin dezakegu, baina demokraziarik gabe eta joera autoritarioei atea irekiz.

Praktikan, hirugarren mugimendua ari da gailentzen, eta, horri guztiari eta herrialde aberatsetan *langile zuri pobreak* errealtate berriari erreparatuz gero, ikus daiteke garai ezegonkorrak ari direla nagusitzen munduan zehar. Garai ilunak: arazo ekonomikoei erantzun desegokiak ematen zaizkie; erruaren erantzukizuna instrumentalki edo premien arabera beharrezko den immigrazioari leporatzen zaio; eremu politikoa ez da gai egoera bideratzeko, eta desafekzioa nagusitzen doa.

Bitartean, ekonomia globalak bilakaera propioa dauka, gizarte eta Estatuetik autonomia nabarmenarekin. Eraitza, ezinbestean, Estatuak atzerantz egitea edo autobarnatze etnikoa da, horixe eskatzen baitiete herritarrek, Europa osoan ikusten ari garen moduan, eta, bide batez, europar proiektua bera ere kolokan dago. Egoera horren eraginak nabarmenak dira immigrazioan; guztiz beharrezkoa den une batean, atek gero eta itxiagoak izango ditu, eta ezingo du lagundu ez herrialde hartzaileetan ez sorterrikoetan. Ekonomia globalaren gorpil zoroak kalteak baino ez dakartza, bai immigrazioan bai garapenean; beraz, lehenago ere immigrazioak garapen errealean eragin txikia bazuen, egungo egoeran txikitu egin da bere esku-hartzea.

6. Ondorioak: posible al da migrazioen eta garapenaren ekuazioa gauzatzea?

Migrazioen eta garapenaren arteko harremana, sarritan, dikotomia baten arabera azaldu da; horren arabera, migrazioek lurralde desberdinen garapena saihestu dezakete, batetik, edota bultzatu eta suspertu, bestetik.

Gizarte-zientzien ikuspegitik gizarte-errealitatea beltza edo zuria ote den esatea basakeria izango litzatekeen eran, gai honetan ere gauza bera gertatzen zaigu. Testuan ikusi dugun bezala, migrazioen eta garapenaren arteko harremana gatazkatsua zein bertutetsua izan daiteke.

Beraz, migrazioak onak edo txarrak diren galdetzea baino, egokiagoa dirudi eztabaida beste era batean mahaigaineratzea: zer baldintzatan izan daiteke migrazioa garapenaren bultzatzaile? Nola uztartu bi kontzeptu eta errealtate horiek? Galdera horiek erantzuten saiatzen bagara, eta ez besteak, emaitza hobekak lortuko ditugu bi kontzeptu horiek uztartzeko nahi horri dagokionez, eta erronka horri aurre egiteko, iruditzen zaigu hainbat elementu hartu behar direla kontuan. Horrela, bada, gai horrekiko hurbilketa bera da pentsatu behar dena (Portes, 2015).

Horren harira, ezin dugu ahaztu hurbilketa hau oso lotuta dagoela migrazio ekonomikoekin, eta garrantzitsuak diren –eta gero eta gehiago– errealtateak lantzeko arazoak azaltzen dituela. Besteak beste, behartutako migrazioak, zirkulazio migrazioak, etab.

Lehenik eta behin, argi izan behar dugu migrazioek ezin dutela garapenaren auzia konpondu; hori miraria izango litzateke, eta ez dago miraririk gizarte-errealitatea tartean dagoenean. Migrazioek, zenbaitetan, garapena bultzatu dezakete, baina garapenerako politika argi, sendo eta eraginkorrik izan ezean, emaitzak oso mugatuak izango dira. Horren harira, migrazioen eta garapenaren arteko harremana era xumeago batean planteatuz gero, lor daitezkeen emaitzak zein analisi-hurbilketak zehatzagoak izango dira.

Bigarrenik, bai alde batetik zein bestetik, baieztapen biribilak eta zentzudunak planteatzen dira, eta, gero, lege orokor bat balitz bezala defendatu. Alabaina, ebidentzia empirikoek esaten digutenaren arabera, baieztapen horiek, gehienetan, ez daude hain garbi, eta orokortzeko zailtasun handiak daude. Horrenbestez, agian, eztabaida teorikoari dagokionez, xumetasun apur bat barnatzea ere ondo legoke. Alde batetik, zenbait hipotesi zalantzan jartzeko, baina, bestetik, orokorrak diren hainbat baieztapen tokian tokiko emaitza gisa tratatzeko. Horren bidez, errealtatearen azterketa sakonagoa egin ahal izango da. Adibide bat

jartzearren: migrazioen eta garapenaren dohainak azpimarratzen dituen hurbilketa –eta transnazionalismoa, oro har– asko baldintzatzen dute Mexiko eta Estatu Batuen artean sortu diren migrazio-fluxu eta sareek. Horiek aztertzea interesgarria da oso, baina zalantzarik gabeko da eredu hori orokortzat har ote daitekeen, eta nazioartean gertatzen diren migrazioak ulertzeko tresna bakarra eta baliogarria izan.

Jatorrizko lurraldeak eskaintzen dituen testuingurua –politikoa, ekonomikoa, instituzionala, kulturala, soziala- eta baliabideak ere oso garrantzitsuak izango dira, eta, garapenerako tresna egokiak egonda ere, arrakasta ez dago inondik inora bermaturik.

Beraz, eta lan honen izenburura bueltatuz, migrazioek susta al dezakete garapena jatorrizko zein helmugako lurraldeetan, eta nolabaiteko *win-win* agertokia ahalbidetu?

Gure ustez, era orokorrean erantzun behar izanez gero, erantzuna ezezkoa da. Lehen aipatu ditugun baldintza eta faktoreengatik, eta, hein handi batean, oso nabariak direlako mundu-mailako harreman ekonomikoen asimetriak eta desorekak. Migrazioen eta garapenaren inguruko eztabaida mahaigaineratzen da jada migratu denean, baina oso gutxik planteatzen dute zeintzuk diren migratzeko faktore eta arrazoiak, eta, gure ustez, horiek baldintzatzen dute eztabaida osoa. Lehenengo unetik desoreka eta ezberdintasunak daudelako gertatzen dira migrazio-fluxuak; ez dira oreka-testuinguru batean sortzen, eta ezin da alde batera utzi, azken urteetan, eredu neoliberalak barne-ezberdintasunak handitu baino ez dituela egin garatuak ez dauden herrialde gehienetan. Gainera, ikusi ahal izan dugun bezala, globalizazioak eta horrek ekonomian eta politikan dituen eraginak zaildu egiten du migratzaileen eta immigrazioaren efektu positiboa jatorrizko lurraldean.

Zenbait kasutan, eta baldintza jakinetan, zirkuluaren koadratura lortuko da, baina emaitza horiek orokortzea zaila ikusten dugu. Era berean, jada esan den bezala, ezin dugu ahaztu, bai jatorri zein helmugako lurraldeetan onurak lortu arren, onura horiek asimetrikoak izan daitezkeela, eta, kasu gehienetan –beti ez esatearren–, helmugako lurraldea ateratzen da garaile.

Bibliografía

- CANALES, Alejandro (2005): "El papel económico y productivo de las remesas en México. Una visión crítica", Seminario Problemas y desafíos de la migración y el desarrollo en América, apirilak 7-9, Cuernavaca, Mexiko, <http://www.huellasmexicanas.org/alejandra/migracion-y-economia/canalesalejandroremesas.pdf> view web orrialdean eskuragarri.
- CASTELLS, Manuel (1997): *La era de la información: economía, sociedad y política. Volumen I. La sociedad red*, Alianza, Madril.
- CASTLES, Stephen eta DELGADO WISE, Raúl (2007): "Introducción. Migración y desarrollo: perspectivas desde el sur", CASTLES, Stephen eta DELGADO WISE, Raúl (koord.): *Migración y desarrollo: perspectivas desde el sur*, Miguel Angel Porrúa, Mexiko Hiria, 5-19.
- CEMLA (2017): *Las remesas hacia América Latina y el Caribe en 2016. Nuevo Récord*, Centro de Estudios Monetarios Latinoamericanos, Mexiko Hiria.
- CLEMENS, Michael (2014): *Does Development Reduce Migration?*, Center For Global Development, Washington.
- DELGADO WISE, Raúl (2004): "Globalización y migración laboral internacional. Reflexiones en torno al caso de México", DELGADO WISE, Raúl eta FAVELA, Margarita (ed.): *Nuevas tendencias y desafíos de la migración internacional*, Miguel Angel Porrúa, Mexiko Hiria, 13-25.
- GIMÉNEZ, Carlos (2004): "Introducción: Expectativas, concepciones y escenarios de futuro", Hainbat autore: *Migraciones y desarrollo. Estudio de dos casos particulares: Ecuador y Marruecos*, Centro de Estudios de Cooperación al Desarrollo, Madril.

- HARVEY, David (2004): *El nuevo imperialismo*, Akal, Madril.
- HARVEY, David (2007): *Breve historia del neoliberalismo*, Akal, Madril.
- IGLESIAS, Juan; MORENO, Gorka; FERNÁNDEZ, Mercedes; OLEAGA, Jose Antonio eta VEGA, Felipe (2015): *La población de origen ecuatoriano en España. Características, necesidades y expectativas en tiempo de crisis*, Embajada de Ecuador en España, Madril.
- LEE, Everett S. (1966): "A theory of migration", *Demography*, 3(1), 47-57.
- MASSEY, Douglas S. eta PARRADO, Emilio (1998): "International Migration and Business Formation in Mexico", *Social Science Quarterly*, 79(1), 1-20.
- MORENO, Gorka eta AIERDI, Xabier (2015): *Migrazioen Soziologia: Gerturapen teoriko eta praktikoa*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.
- MORENO, Gorka eta ÁLVAREZ, Jose (2017): "Empirical evidence on return migration from Spain to Ecuador. Discourse, myth or reality?", *Papeles de Población*, 91, 39-64.
- NAÏR, Sami (1997): Informe de balance y orientación de la política de codesarrollo en relación a los flujos migratorios, Ministerio de Asuntos Exteriores de Francia, <http://www.novusmundus.org/wp-content/uploads/1-Sami-Na%C3%AFr-Un-balance-del-codesarrollo2.pdf> web orrialdean eskuragarri.
- NEWLAND, Kathleen (2006): "Las redes migratorias como recurso de desarrollo más allá de las remesas", BLANCO, Cristina (Ed.): *Migraciones. Nuevas movilidades en un mundo en movimiento*, Anthropos, Bartzelona, 57-90.
- NISBET, Norbert (1981): *Historia de la idea de progreso*, Gedisa, Bartzelona.
- PELLEGRINO, Adela (2001): "Trends in Latin America Skilled Migration. Brain Drain or Brain Exchange?", *International Migration*, 39(5), 111-131.
- PORTES, Alejandro eta DeWIND, J. (2004): "A Cross-Atlantic Dialogue: The Progress of Research and Theory in the Study of International Migration", *International Migration Review*, 38 (3), New York, 828-851.
- PORTES, Alejandro (2011): "Migración y desarrollo: un intento de conciliar perspectivas opuestas", *Nueva Sociedad*, 233, 44-67.
- PORTES, Alejandro (2015): "El debate sobre migración y desarrollo. Evidencias y aportes desde América Latina", *Latin American Research Review*, 50(1), 29-53.
- PORTES, Alejandro; GUARNIZO, Luis, E. eta LANDLOT, Patricia (1999): "The study of Transnationalism: pitfalls and promise of an emergent research field", *Ethnic and Racial Studies*, 22(2), 217-237.
- REICHERT, Joshua (1981): "The Migration Syndrome: Seasonal U.S. Wage Labor and Rural Development in Central Mexico", *Human Organization*, 40(1), 56-66.
- RODRIK, Dani (2011): *La paradoja de la globalización*, Antoni Bosch, Bartzelona.
- SASSEN, Saskia (1988): *The Mobility of Labor and Capital: A study in international Investment and Labor Flow*, Cambridge University Press, Cambridge.
- SOLÉ, Carlota eta CACHÓN, Lorenzo (2006): "Presentación. Globalización e inmigración: los debates actuales", *REIS*, 116, Madril, 13-52.
- SUTCLIFFE, Bob (1998): *Nacido en otra parte. Un ensayo sobre la migración internacional, el desarrollo y la equidad*, Hegoa, Bilbo.
- STIGLITZ, Joseph E. (2007): *El malestar en la globalización*, Taurus, Madril.
- WORLD BANK (2018): Migration and Remittances. Recent Developments and outlook, <http://www.knomad.org/sites/default/files/2018-04/Migration%20and%20Development%20Brief%202029.pdf> web orrialdean eskuragarri.

1. **Garapenari buruzko pentsamenduaren bilakaera: teoriak, estrategiak eta adierazleak.** Luis Guridi, Hegoa Institutua Ekonomia Aplikatua I Saila. 2017.
2. **Garapena eta iraunkortasuna: bilakaera, bateragarritasuna eta ikuspegiak.** Iker Etxano Gandariasbeitia, Ekonomia Aplikatua I Saila, UPV/EHU. 2017.
3. **Garapena feminismitik aztertzen.** Yolanda Jubeto Ruiz, Mertxe Larrañaga Sarriegi, Hegoa Institutua, Ekonomia Aplikatua I Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
4. **Garapenerako lankidetzeta eta bere bilakaera.** Irati Labaien Egiguren, Jorge Gutiérrez Goiria, Hegoa Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
5. **Amildegari so: krisi ekosozialari aurre egiteko zenbait oinarri.** Joseba Azkarraga Etxagibel, Soziologia Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
6. **Migrazioak eta garapena Win-win agertokia posible ote?** Gorka Moreno Márquez, Xabier Aierdi Urraza, Ikuspegi – Euskal Immigrazioaren Behatokia. Euskal Herriko Unibertsitatea.

